



elkarri **kasi**

300 pta.

formakuntza eta dibulgazio liburuxkak


8

kaleko  
enfrentamendu  
eta indarkeria:  
gogoetak eta  
proposamenak

elkarri



azaroa 96



# aurkibidea

	orriak
sarrera	2
fenomenoa bere testuinguruan kokatuz	3
fenomenoaren analisia eta karakterizazioa	5
jarrera irekia kaleko indarkeriaren fenomenoaren aurrean	7
ekintzekin erakustea bidezko soluzioak lortzeko borondatea	9
biolentzia / ez-biolentzia eztabaidari ateak zabaldu	11
elkarrizketari buruz dugun ideia zuzendu	13

**elkarrikasi 8** 1996ko azaroa

Argitaratzailea: elkarrri. Madrid Etorbidea, 5. eskuin eskailera - tartep. 20011 Donostia

Tnoa.: (943) 45 93 75 Faxa: (943) 45 07 58

e-mail: elkarrit@encomix.es

Egilea: elkarriko Tailer Nazional Iraunkorra

Zuzendaria: Iñaki Gorostidi. Erredakzio taldea: Zigor Agirrezabala, Marina Goikoetxea, Joseba Ossa.

Maketazio eta diseinua: elkarrri

Imprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

ISSN: 1134-802X. Lege Gordailua: SS-44/95

## sarrera

«Errua beti ondokoak duelakoan norbera bere lubakian gordetzen da. Etsaia ala adiskidea, horra aukera txuria ala beltza, besterik ez da. Eta bienbitartean, haizerik gabe hodeiak zeruan usteltzen dira»  
(Deabruak Teilatuetan)

«Kaleko indarkeria», «kale borroka» edo «gazteen indarkeria» fenomeno berbera adierazteko erabiltzen diren izen desberdinak dira. Azken hilabeteotan gai hori eztabaida politikoaren eta komunikabideen arreta-gune nagusi bihurtu da.

Dokumentu honetan elkarrik gai honen inguruan duen ikuspuntua aurkezten du, gogoeta eta proposamen bilduma bat eskainiz.

Gogoeta bakoitzak aldi berean proposamena ere ba da, gaia jorratzeko modu berri bat iradokitzen du e l a k o . Gogoeta bakoitzak paradigma-aldaketa

bana proposatzen du fenomeno beste modu batean aztertu ahal izateko, hau da, une honetan bere inguruan dauden aurreiritziak, apriorismoak, sinplifikazioak, larritasunak, presak eta ikuspuntu itxiak kentzen saiatuz.

Testu honetan ez dago formula magikorik, soluzio instantaneorik –fenomeno honek ez baitu horrelakorik– ezta kaleko indarkeriaren ondorio guzti-guztiak leunduko dituen neurri-zerrendarik ere. Agian ondorengo hauxe da azterketa bera gaiztotu eta baldin-tzatzen duen metodo-hutsegiterik handienetako bat: soluzio magiko eta instantaneoak daudenik pentsatzea.

Esan beharra dago, baita ere, lan hau ez dela inola ere kalean borrokatzeko eta manifestazioak egiteko eskubidearen kuestionamendu generikoa. Ikuspuntu honetatik lasai asko esan genezake «Bai kale borrokari», zeren kale borroka da meatzari asturiarrek, jornalero andaluziarrek, Gandhi, Martin Luther King eta beste hainbestek egin dutena. Kale borroka eskubide eta ariketa legitimo eta demokratikoa da, presioa egiteko modu inde-

pendentea, politika parlamentarioaren edo instituzionalaren osagarria edota aurkakoa. Dena den kale borrokaren eredu edo tresnetan zentratu behar dugu.

Dokumentu honetan lan-eremu zabalak definitzen dituzten gogoetak eta proposamenak daude, hau da, irtenbiderako bide positibo bat eraikitzen lagun dezaketen gogoetak eta proposamenak. Ez daude espreski instituzioetara zuzenduta, neurri zerrenda bat izango balitz bezala. Gizarte osoari zuzendutako lana da, kezkatzen duen fenomeno horri modu konstruktiboan aurre egiteko irizpide eta tresna batzuk eskaintzeko asmoz egina.

Dokumentua bost atal eta eranskin baten inguruan antolatuta da. Lehen atalean fenomenoaren enmarkatu egiten da; bigarrenak fenomenoaren analisia eta karakterizazioa eskaintzen du; hirugarrenean fenomeno hau jarrera ireki batez jorratzeko irizpide batzuk iradokitzen dira; laugarren atalak bost lan arlo proposatzen ditu, eta bosgarrenak biolentzia/ez-biolentzia ardatzaren inguruan eztabaidatzera gonbidatzen du. Eranskinak, azkenik, gure elkarrizketa-ohiturak birplanteatzera gonbidatzen gaitu, eta bereziki zuzenduta dago elkarrizketa positiboak eta konstruktiboak bultzatu nahi dituzten pertsona edo entitateei.

Dokumentu honetan ez dago formula magikorik, ezta kaleko indarkeriaren ondorio guzti-guztiak leunduko dituen neurri-zerrendarik ere

## lehen gogoeta - lehen proposamena

# fenomenoa bere testuinguruan kokatuz

1.1. «Gazte indarkeria» izena ez da egokia

Denboran zehar, euskal gatazkak aurpegi-aldaketa bat baino gehiago izan du, noizean behin berrikuntza batzuk agertzen baitira. Euskal gizartearen arazoei bidezko soluzioak bilatu nahi badizkiegu berrikuntza horiek ondo identifikatu beharko ditugu. Transformazio horiek gazte indarkeriaren fenomenoaren agerpenera mugatzea oso analisi partzial eta sinplifikatzailea egitea da. Gazteen bizkar gainera botatzen du agian helduena den erantzukizun bat.

Ur korronteak bere bidea itxita duenean bide eta lur berriak bilatzen dituen bezalaxe, hogeitau urte baino gehiagok blokeatuta egon den gatazkak espazio berrietara zabaltzeko joera du. Urte askotan zehar gatazkaren biolentziaren adierazpenak oso terreno mugatu batean eman dira, puntual eta esporadikoki, eta bi sujetu nagusi izan dute: Estatua eta ETA.

Azken garaiotan gatazkaren adierazpen biolentzia espazio berri batera zabaltzen joan da. Biolentzia eta enfrentamenduak areagotzen ari dira kalean, han-hemenka, foko askorekin, intentsitate berri batez eta sujetu berriekin. Horixe da benetako berrikuntza, baina gatazkaren garapenean eman den aldaketa hori ezin zaio gazteei edo gazteen sektore bati bakarrik leporatu.

Fenomeno hori belaunaldi batena baino gehiagoren artekoa dela erakusten duten adibideak asko dira: manifestazio eta kontramantestazioetan ematen diren enfrentamendu eta indarkeriazko ekintza guztiak, Lasa eta Zabalaren hileta eta lurperatzea, azken bi urteotan Hernanin, Laudion, Gasteizen, Ondarroan eta beste zenbait tokitan gertatutako iskanbilak, herrietako festetan, Udal Pleno asko, Eusko Legebiltzarreko atarian gertatutakoa, poliziaren jokabidea preso senideen aurrean, alderdi politikoen egoitzen aurrean edo kargu publikoak dituztenen etxeen aurrean egindakoak eta abar eta abar. Hori guztia ere enfrentamendua eta kale biolentzia da. Testuinguru orokor horretan eta beste gauza askoren artean gertatu da enka-

putxatuen taldeen agerpenean, gehienetan gazteak izanik, eta sabotajezko ekintzak eginez.

Beraz, ez dirudi objetiboa eta bidezkoa denik egoera orokor hori «gazte indarkeria» izenez kalifikatzea. Euskal gatazkaren blokeo egoerak espazio berrietara zabaltzeko biolentzia eta enfrentamenduaren adierazpenak. Zuzenago dirudi aldaketa hori «indarkeria difuso» izenez definitzea. Definizio herrikoia nahi izanez gero, «kaleko indarkeria eta enfrentamendua» erabil dezakegu.

Analistak berak erabaki beharko du nola aztertu eta zein irtenbide eman nahi dion egoera berri honi:

arazoa gazte enkaputxatuen taldeen agerpenera mugatuz eta hori landuz, edo bestela transformazio zabalago baten azterketari ekinez. Gatazkaren

transformazio hori biolentzia difusoren fenomeno eragiten ari da eta noski, arrazoi nabarmenak direla-eta, gazteek joera handiagoa dute biolentzia mota horretan inplikatzeko.

1.2. Ez da fenomeno isolatua. Gatazka politiko eta biolento blokeatu baten testuinguruan kokatzen da

Biolentzia difusoren fenomeno ez da fenomeno isolatua, gatazka politiko eta biolento jakin baten testuinguruan kokatzen baita. Ez da kasualitatea une honetan gertatzea, hain zuzen ere aurreko erregimenaren desagerpenetik hogeitau urte igaro ondoren, eta belaunaldi batek baino gehiagok jasan dituen erregimen horren gora-beherak.

Gizartearen frustrazioaren eta etsipenaren adierazpena da. Beraz, lotura garbia dauka irtenbideak eskaintzeko gaitasun gabezia politikorekin, ez baitira ikusten gizarteari itxaropen pixka bat emango dioten emaitza, aldaketa edo hobekuntza txikiak ere.

Ur korronteak bere bidea itxita duenean bide eta lur berriak bilatzen dituen bezalaxe, hogeitau urte baino gehiagok blokeatuta egon den gatazkak espazio berrietara zabaltzeko joera du

### 1.3. Fenomenoa ez da hain berria

Berrikuntza bere intentsitatean eta aldibereketasunean datza. Azken bi hamarkadetan izan dira horrelako kale istiluak ere, baina askoz gutxiagotan eta eragin txikiagoak izanik komunikabideetan. Kaleko indarkeria eta enfrentamendua beti egon dira hor euskal gatazkaren osagarri gisa, baina gora-behera batzuekin, gero eta sarriagotan agertuz.

Aurreko atalean bezalaxe hipotesi bat

plantea dezakegu: denboraren eta belaualdien iragaitzak, etorkizun edo irtenbiderako itxaropenik ezak, eta emaitzarik ematen ez duten estrategiak erabiltzeko estuasunak in-

tentsifikatu eta estabilizatu egin dute lehen noiz behinka soilik agertzen zen fenomenoa.

### 1.4. Ez da gure gatazkan ematen den biolentzia-fenomeno bakarra

Komunikabide gehienek eskaintzen dioten arretoa edo politikariek beren adierazpenetan ematen dioten lehentasuna kontuan izanik batzuetan badirudi hori dela gure arazo nagusia edo agian arazo bakarra.

Azken hilabeteotan astero –eta batzuetan ia egunero– ikusten ditugu autobus erreak, bi manifestazio elkarren aurrean edo manifestarien eta Ertzaintzaren edo poliziaren arteko istiluak, telebistan edo prentsa idatzian. Komunikabideen inertzia horrek eta despliege audiobisual horrek arazoak duen baino garrantzi handiagoa ematera eramane gaitzake eta komunikabideek erakusten ez digutena ez ikustera edo ez sinestera.

Gatazka honekin eta biolentzia difusorekin zerikusirik duten beste indarkeria batzuk ere badira, baina ez dira ikusi edo entzuten. Zer gertatuko litzateke astero-astero ikusiko bagenu nola egurtzen duten preso bat, nola eramaten duten furgonetan kartzela batetik bestera, nola torturatzen dituzten, edo nola 70 urte dituen ama bat ostiralero igotzen den autobus batera hamabi orduz bidaiatu ondoren seme presoarekin ordu erdi bat egoteko? Zer gertatuko litzateke astero ikusiko bagenu

nola bizi diren intsumiso presoak edo GAL kasuagatik kartzelan daudenen egoera? Ziurraski gizartearen kontzientzian arazoa ez litzateke bakarra izango. Bat baino gehiago egongo litzateke.

Guk ez ditugu irudi horiek ikusten, baina hor daude, indarkeria difusoa bezalaxe. Perspektiba hori ez galtzea komeni da, arazoa ez puzteko, ez dramatizatzeko edo alferrikako urgentziaz ez jokatzeko, horrela irtenbide eraginkorrak bilatu ahal izateko eta gauza bat ulertzeko: indarkeriazko ekintza askoren jatorria irainak eta bidegabekeriak jasatearen sentimenduetan dagoela.

### 1.5. Arazoa ez da hain handia

Fenomeno honi lehen hurbilketa objetiboa eskaintzen badiogu galdera serioak planteatu-ko zaizkigu fenomenoaren benetako tamaina eta garrantziaren inguruan. Galdera hau egin dezakegu: ematen zaion adina garrantzia ba al du? Ezin dugu ahaztu inmobilitatearen menpe dagoen gatazka bat bizitzen ari garela. Inmobilismoaren inertziak komunikabideen gose aseezina eragiten du eta mitologia berriak sortzeko premia politikoa –edo agian antisietate politikoa– sortarazten du, atentzioa erakartzeko eta alineamendu soziala indartzeko. Arrazoizkoa dirudi, beraz, puztutako fenomeno baten aurrean gaudela pentsatzea.

Eman diezaiogun fenomeno horri merezi duen garrantzi guztia, baina bere neurrian. Arazo larri baten aurrean gaude eta irtenbideak behar ditugu, baina egoera hau ez da kaos edo katastrofe egoera. Garai hauetan edozein azterketa egiterakoan beharrezkoa da Europako beste lekuetan zer gertatzen den ikustea. Beraz, komenigarria da kontuan izatea kaleko indarkeriak astero-astero heriotza kopuru altu samarra eragiten duela Europako hiririk handienetan, baita Bartzelona, Madril, Sevilla edo Valentzia bezalako hirietan. Datu horrek ez lioke garrantzirik kendu behar Euskal Herrian jasaten dugun kale indarkeriari, baina bere neurrian aztertzen lagundu behar ligoke. Azken hilabeteotan gure herrian zabaltzen ari den alarma sozialeko psikosi antzeko hori ez da soluzioak bilatzeko lagunik onena.

Euskal gatazkaren blokeo egoerak espazio berrietara zabaldu ditu biolentzia eta enfrentamenduaren adierazpenak. Zuzenago dirudi al daketa hori «indarkeria difuso» izenez definitzea

## bigarren gogoeta - bigarren proposamena

# fenomenoaren analisia eta karakterizazioa

Orain arte esandako guztiak ez dio garrantzirik kentzen fenomeno honi, zeren bere benetako dimentsioan aztertuta ere, seinale kezagarriak ditu. Honenbestez, fenomenoaren karakterizazioa erakutsiko duen azterketa egiteko ordua iritsi da.

Kaleko enfrentamenduak eta biolentzia duela gutxi gora-behera bi urtetik hona intentsitatea hartzen joan den fenomeno da, Julio Iglesias Zamora-ren bahiketa garaitik. Hiru maila desberdinetan adierazten da: elkarren aurrean egiten diren manifestazioak, enfrentamendu espontaneoak, eta alde aurretiko antolaketa eskatzen duten ekintza biolentoak edo sabotajeak.

Hiru maila horien artean nolabaiteko koerlazio bat ematen da, batez ere hasieran. Batak bestea eragiten du; dinamika irregular samarra da, baina nahiko iraunkorra. Bi manifestazioen artean (1) gertatzen diren istiluek enfrentamendu espontaneoak (2) eragiten dituzte manifestatzaileen artean edo manifestatzaileen eta polizien artean. Gertakizun hauek sabotaje ekintzak (3) eragiten dituzte erantzun gisa eta ekintza horiek manifestazio berriak deitzera eramaten dute, kate horri jarraipena emanez. Dinamika hori edozein mailatan has daiteke. Hortik aurrera fenomenoak hartzen duen bideak logika gutxiago du eta simultaneoago da.

### 2.1. Manifestazio eta kontramanifestazioak

Euskal Herri osoan gertatzen dira, eta modu iraunkorren. Azken hilabeteotan intentsitatea galdu egin da eta manifestarien kopuruak behera egin du. Beste aldetik azken aldiari ugaritu egin dira kargu publikodunen eta alderdi politikoen egoitzen aurrean egindako kontzentrazioak.

### 2.2. Enfrentamendu espontaneoak

Ikuspuntu estatistikotik ikusita, lotura garbia dago istilu edo enfrentamendu espontaneo eta eskualde bakoitzean interbentzio polizialen inguruan hartzen diren irizpideen artean. Beste kasu batzuetan istilua sortu duen

txinparta manifestari batzuen jarrera agresiboa, ofentsiboa edo probokatzailera izan da. Kasu askotan poliziaren interbentziorik ezak edo kontentziora mugatutako interbentzioek enfrentamendurik gertatu ez izana eragin du. Herri askotan horrelako kontzentrazio ugari egin dira eta ez da inoiz istilurik gertatu. Interbentzio polizialaren bidez manifestarien talde bat sakabanatu nahi izan denean, ordea, normalean enfrentamenduak gertatu dira.

### 2.3. Ekintza biolentoak edo sabotajeak

Alde aurretiko prestaketa behar duten ekintza biolento edo sabotajeak ugaritzen joan dira azken bi urteotan. Ikuspuntu geografikotik ikusita ez dira hain ugariak, eskualde eta udalerrri jakin batzuetan zentratzen baitira. Denboraren aldetik nahiko erregularrak dira. Ia aste guztietan gertatzen da horrelako ekintza bat baino gehiago. Baina data, gertakizun edo deialdi jakin batzuetan ekintza horiek ugaritu egiten dira.

Ekintza horiek mota askotakoak izan daitezke: Manifestazio batean poliziaren interbentzio posiblearen aurrean erantzun biolentzia prestatzea, autobusak, zabor kontenedoreak, telefono kabinak, kutxazain automatikoak, bankuak, alderdi politikoen egoitzak eta abarren kontrako ekintzak eta abar. Ekintza horiek egiten dituztenak pertsona enkaputxatuak izaten dira (atxiloketei buruzko datuen arabera gehienak 25 urtetik beherakoak dira) eta suziri, molotov koktelak, harriak, oholak eta bestelako objektuak erabiltzen dituzte.

Biolentzia difusorearen manifestazio hirugarren maila honetan azterketa espezifikoak eskatzen duen elementu bat azpimarra daiteke:

Krudeltasun ezaugarrien agerpena; eta krudeltasun adierazpen horiek borroka politikoaren eremuan justifika zitekeena baino urrutia-  
go joaten dira

Krudeltasun ezaugarrien agerpena; eta krudeltasun adierazpen horiek borroka politikoaren eremuan justifikatu zitezkeena baino urrutiago joaten dira. Gerretan ere nolabaiteko mugak eta «arauak» definitzen dira, baina kasu honetan badirudi batzuetan ez dagoela mugarik. Hilobiak profanatzea, kargu publikoak dituztenen etxeetako ateetan katu hilak zintzilikatzea, pertsona batek gorputzaren %80 erreta dagoenean ekintza horiek ospatzea, pertsona zibilei molotov koktelak botatzea, langileak erasotzea edo hiritarrei gerta dakiekeenagatik kezkarik gabe edo mesprezuz jokatzeko eta antzeko ekintzei esplikazio politikoa aurkitzea oso zaila da.

#### 2.4. Fenomenoaren pertzepzio soziala eta kanpoko pertzepzioa

Aztertzea komeni den beste gauza bat zera litzateke: nola pertzibitzen duen fenomeno hori gizarteak eta kanpoko behatzaileak. Egoera hori sortzen ari den alarma sozialeko

psikosiaren ondorioak etorkizunean zeintzuk izango diren jakitea oso zaila da. Gaur egun jadanik zenbait ondorio atera daitezke egoera horretatik.

hiritarrei gerta dakienagatik kezkarik gabe edo mesprezuz jokatzeko eta antzeko ekintzei esplikazio politikoa aurkitzea oso zaila da

Lehenik aurkakotasun hazkorra sortzen ari da zenbait sektore sozial eta politikoren aurka. Erregai inflamagarria txinparta baten ondoan ipintzea bezala litzateke. Bigarrenik, giro honen ondorioz gizarteak gero eta joera handiagoa du poliziaren presentzia eta eskuhartzea eskatzeko.

Kanpoko behatzailearentzat biolentzia difusoaren fenomenoak euskal herritarren arteko gatazkaren itxura hartzen du eta garrantzia kentzen dio gatazka honen izaera politikoaren interpretazioari. Estatuaren ikuspegitik fenomeno honek errazago eta asimilagarriago bihurtu dezake euskal gatazka politikoa, bere kontradikziorik nabarmenena "euskal herritarren arteko arazo" gisa aurkezten baitu.

#### 2.5. Elementu katalizatzailea

Azkenik, atal honetan interesgarria litzateke aztertzea nola iritsi den fenomeno hori

gaur egungo egoerara. Beste kasu askotan bezala ezin daiteke arrazoi bakar batez hitz egin. Arrazoi bat baino gehiago dira fenomeno honi gorputza eman diotenak. Elementu katalizatzaile batez gain lau faktore posible aipatuko ditugu:

- Estrategia pazifista jakin batzuen kalkulu-errore posiblea, zeren kalearen konkista desafio politiko eta erronka konpetitibo gisa hartu dutenean intentsitate aurreikusi gabeko erreakzioa bultzatu baitute. "Basta ya" (nahikoa da) eta antzeko gertakizunek ondorio kaltegarriak izan ditzakete.

- ENAMek fenomeno horri eman dion estaldura sozial eta politiko globala, potentziala ikusi diolako ekintza politikoaren tresna praktikoa gisa, kostu baxukoa, neutralizatzen zaila eta iniziatiba berreskuratzeko modu gisa. Horrez gain sabotaje ekintzak egiten dituzten inguru sozial hurbilen edo erreferentzialen jarrera akritikoa dago.

- Poliziaren zenbait ekintzek izan duten eragina. Lasa eta Zabalaren hiletan eta lurperatzean ikusitako gertakizunak bezalakoek kalteko enfrentamendurako boluntarioen erreklamamendua erraztu egiten dute.

- Komunikabide jakin batzuen tratamendu intentsiboa ("bozgorailu" efektua), eta gazteriaren sektore baten estigmatizazioan obsesiboki zentratzeak, politikarien eta adituen analisi eta proposamenetan ikus daitezkeen bezala, fenomeno hori indartzen lagundu dute, autoerreferentzial bihurtu dutelako bere protagonisten aurrean.

Faktore horiek guztiek ez lukete efektu berbera izango baldin eta ez balitz elementu katalizatzaile bat izango, multzoari gorputza eta indarra ematen dion elementua: gure gatazkak bizi duen blokeo egoera irrazional, antipolitiko eta amaitezina, injustiziazko, agrabiozko eta giza eskubideen errespetu eza erakusten duten egoerekin batera (presoak, intsumisioa, GAL, CESID, eta abar). Horixe da biolentzia difusoaren fenomeno hazi eta gartzatzea ahalbidetzen duen lur emankorra.

hirugarren gogoeta - hirugarren proposamena

## jarrera irekia kaleko indarkeriaren fenomenoaren aurrean

### 3.1. Mahaiaren alde berean ipini

Gai honetan, beste gai askotan bezala, iritzi desberdinak sortzen direnean elkarren aurka dauden bandoen posizioa hartzeko joera dugu. Nolabait esateko alde bakoitza mahaiaren alde batean ipintzen da eta konfrontazio horri hasiera ematen dio. Jarrera horrekin behala iristen da ondorio honetara: arazoa aurrean ditugunak direla, beraiena dela errua.

Komenigarria litzateke beste jarrera bat hartzea. Imajina dezagun denok mahaiaren alde berean eserita gaudela eta arazoa mahai gainean ipintzen dugula. Denok bizi gara herri honetan; denok sufritzen dugu arazoa. Kontua da zer egin dezakegun denon artean konpontzeko. Jarrera horrek distantzia hartzea ahalbidetzen digu, pertsonak eta gertakizunak bereiztea modu hotz eta objetiboan.

### 3.2. Juizio politikoa atzeratu

Biolentzia difusoaren aurrean ez dira oraindik soluziobiderik ezagutzen, ezta diagnostiko garbi-garbirik ere. Hala ere, ez dira falta juizio eta sententzia politikoak. Jende askok (klase politikoan, komunikabideetan, eta adituen artean) beren eginkizun nagusitzat hartu dute fenomenoaren eta balizko arduradunen (gazteriaren sektore baten) kalifikazioa eta juizio azkarra. Ez dirudi jarrera hori zuhurra denik. Sistema judizialak berak azken unerarte atzeratzen du epaiketa, gertakizun guztiak ezagutu arte, elementu guztiak kontrastatu arte.

Politikari, instituzio, komunikabide, aditu edo gizarte mugimenduen lehentasunak ez luke izan behar juizio edo kalifikazio goiztiarrak egitea. Gure lehen eginkizunak diagnostiko zuzena egitea eta soluzioak proposatzea izan beharko luke. Eta ez zuhertasunagatik soilik, batez ere beste arrazoi batengatik baizik: juizio azkarrerako joera zabaldu hori gazteriaren sektore baten estigmatizazio bihurtzen delako, eta horrekin lortzen den gauza bakarra biolentzia difusoaren fenomeno indartzea delako. Ahalegin bat egin behar da sententzia azkarrak egiteko joera hori frenatzeko eta juizioak egitea gerorako uzteko.

### 3.3. Bestearen lekuan ipini

Zer gertatzen da adin bereko bi pertsona, frankismo garaian trintxera berean egonik, auzo berean bizi, eskola berean ikasi, antzeko lana izan eta familia eta baliabide ekonomiko ia-ia berdinak izanik gaur egun kalean aurrez aurre egoteko? Nahikoa al da bietako bat gaiztoa dela edo oker dabilela pentsatzea? Hor beste zerbait aurkitu behar ote dugu? Zein arrazoi, motibazio, sentimendu, emozio edo injustizik ipini dute pertsona hori pankarta horren atzean? Esplikaziorik ba al du horrek?

Oraindik konbentziturik baldin ba gaude azken finean arazoa gazteriaren sektore batera soilik mugatzen dela, egin dezagun ahalegintxo bat gaztearen buruan eta bihotzean zer gertatzen den ulertzeko kaputxa bat jazteko prest dagoen edo zer motibazio izan dezakeen motov koktel bat botatzeko. Inork benetan sinesten al du gai hori gazteen errua dela eta gazte horiek radikalak, biolentoak, fanatikoak, naziak, intoleranteak, faxistak, gurasoen erruz gaizki haziak, eskola-porrotaren biktimak, nortasun arazodunak eta «tribu» baten berotasun sektarioan babesteko beharra dutenak soilik direla?

Eta egoera bestelakoa izango balitz? Gertatzen ari den bezala denetarik balego?, gizarte maila guztietakoak, eskolan emaitza mota guztietakoak dituztenak, tartean idealistak, errebeldeak eta motibazio sano eta solidarioak dituztenak? Nola planteatu beharko genuke gai hau? Eta egoera honen arrazoietako bat aurreko belaunaldiok oso gaizki egin izana balitz, nola jakin ahal izango genuke hori, baldin eta hori guztia gazteen fanatismo adierazpen batera mugatzen badugu? Bestearen lekuan ipintzeak fenomeno

Biolentzia difusoaren aurrean ez dira oraindik soluziobiderik ezagutzen, ezta diagnostiko garbi-garbirik ere. Hala ere ez dira falta juizio eta sententzia politikoak

hobeto ezagutzen eta iritzia ematerakoan oinarri sendoagoak izaten lagunduko digu.

### 3.4. Galdetu egin behar da

Aurreko galdera guztiek erakusten dute galdetu eta entzutea beharrezkoa dela. Galdetu al dio inork norbaiti zergatik ipintzen den mota bateko edo besteko pankarta baten atzean? Eta galdera egin bada, izan al da inor

arrazoiko denbora batez eztabaidatu gabe entzuten egoteko gai? Nork esplikatu-ko luke gero zergatik ipini den pertsona hori pankarta horren atzean?

Agian ez, zeren

konbentzituta gaude arazoa pertsona hori dela, pankarta horrekin egoteagatik, bera dela erruduna. Konbentzimendu horrek gor egiten gaitu. Norbaitek uste al du posible denik elkarriketa bat modu emankorrean egitea edo akordioaren batera iristea galdetu eta entzun gabe?

Biolentzia difusioaren fenomenoak gazterien sektore jakin batean zentratzen jarraitzen bada, aplikatu dezagun eskema berbera. Adibidez, adituen batek galdetu al die gazteei zergatik egiten duten hori, edo laboratoriorikoa soziologia-formula batzuen bidez motibazioak interpretatzera eta asmatzera mugatu dira? Oso garrantzitsua da gazteek esaten edo erantzuten dutena entzutea. Ahaztu behar ez den datu bat dago: sabotaje ekintzen %80 baino gehiago presoan egoeragatik protesta gisa erreibindikatu dira. Zergatik ez da datu hori kontuan hartzen nahiz eta balio erlatiboa emateko besterik ez izan?

Berriro ere ikuspegi partzial edo oker batekin gera gaitzke gazteen manipulazio politiko baten aurrean gaudela esatearekin konformatzen bagara. Pertsona gazte edo heldu bat arriskua hartzeko, enkaputzatzeko eta esate baterako molotov koktel bat botatzeko prest egongo bada, manipulazioa baino zerbait gehiago behar du.

Manipulazioa izan ala ez izan motibazio oso indartsua behar du. Arrazoi objektibo eta subjektiboak izan behar ditu, eta indar emozional fuerte bat arrisku hori asumitu ahal izateko.

Ziurraski, presoan eta senideen egoera, dis-pertsioaren injustizia eta gai horren inguruan jasandako min eta irain guztiak izango dira pertsona gazte edo heldu batek enkaputzatzeko eta molotov koktel bat botatzeko izango dituen motibazioetako bat. Kontua ez da ekintza hori justifikatzea edo horrekin ados egotea, ulertu ahal izateko entzutea baizik. Hori izan zitekeen erantzunetako bat, eta balio erlatiboa du, baina dena den gehiago galdetu eta entzun behar da, erantzun gehiago izango direlako.

### 3.5. Arrazoa eman

Gurea bezalako gatazka larrien egoeretan beldur handia ematen du beste arrazoi ematea. «Normalena» postura defentsiboa hartzera kondenatzea da; besteak egia pixka bat izan dezakeela onartzea ahultasun sintoma bezala hartzen da, edo norberaren estrategiarentzako mehatxu gisa. Beste aldeak, ordea, bere arrazoiak ditu, egiaren zati bat du. Besteak duen arrazoi zati hori identifikatzea da soluzioa eraikitzen hasteko lehen pauso eraginkorra.

Gazteen gaira itzuliz, zer arazo dago haien arrazoi zatia onartzeko? Arrazoi puska ederra dute errebelatzen dituztenekin, intsumituen atxilotetengatik, GALen kontuagatik, soldaduskaren derrigortasunagatik, polizia gehiegikeriengatik, lana edo etxea aurkitzeko itxaropen faltagatik eta beste zenbait arrazoi-gatik. Onar dezagun inolako beldurrik gabe beren arrazoi zatia. Horrek aurrera egitea ahalbidetuko digu eta benetan garrantzitsua den gaian zentratzen: errebelatzen dituztenekin modu legitimoan eta erabilgarrian gartzeko eta injustiziak gainditzeko metodoei buruzko eztabaida.

Besteak duen arrazoi zatia entzun, ulertu eta identifikatzeaz gain behar-beharrezkoa da besteak ondo ulertzea norberak esan nahi duena. Hurrengo urratsa da. Metodo batzuk besteak baino hobekiak edo komenigarriagoak direla frogatzeko ez da nahikoa hitz egitea: ekintzak behar dira.

Eta egoera honen arrazoi-erantzunetako bat aurreko belarri-erantzun oso gaizki egin izana balitz, nola jakin ahal izango genuke hori, baldin eta hori guztia gazteen fanatismo adierazpen batera mugatzen badugu?

laugarren gogoeta - laugarren proposamena

## ekintzekin erakustea bidezko soluzioak lortzeko borondatea

### 4.1. Fenomenoa serenitatez aztertzea eta helburu bat ezartzea

Biolentzia difusoaren fenomenoak serenitatez eta pazientziarekin jokatzeko eskatzen du. Ez dugu planteatzen langabeziaren, ingurugiroaren, etxebizitzaren edo bestelako gaien inguruan hiritarrei eskatzen zaien pazientzia izatea. Ez da hainbeste eskatu nahi, modu serenoan eta pentsatuz jokatzeko baizik, aste batek bestera konpromisuzko neurriak inprobisatzen behartzen duen presa handiegirik gabe jokatzeko baizik.

Horrek ez du esan nahi pasibitatea eta resignazioa bultzatzen direnik, soluzio instantaneo, formula magiko edo mirarizko neurriak bilatzeko tentazioari uko egin behar diogula baizik. Jarrera lasai batek azkarregi jokatzeko saihestuko luke, eta ez luke utziko, esate baterako, adin penala jaiste edo bideobijilantziari buruzkoa bezalako erabakiak hartzen.

Hala ere, helburu erreala, bideragarri eta zentzudun bat ezarri beharko litzateke, eremu horretan ekintza sozial eta politikoa gidatuko duena. Gizarte mugimendu honen iritzi, helburua hau litzateke: kaleko indarkeria eta enfrentamenduaren fenomeno pixkana iraultzen joatea, gainditu arte, ahalegin berezia eginez fenomenoaren oinarrian dauden arrazoi erantzun positiboak lortzeko.

### 4.2. Desblokeo espazioak zabaltzea euskal gatazkan

Kaleko indarkeriaren arazoaren irtenbideak Euskal Herriak bizi duen gatazka eta biolentzia egoeraren irtenbideari lotuta egongo dela esatea ez da inolako berrikuntza profetikorik. Aurreko esaldi horretatik ezin da ondorioztatu, ordea, euskal gatazkaren konponketa eguna iritsi arte zain egon behar dugunik gure kaleetako biolentzia eta enfrentamendu giroa gainditzeko. Kontua da indarkeria difusoa sustraituta dagoela gatazka politikoa zabal eta konplexuago batean eta bere intentsitate eta erritmoak lotura zuzena izan dezaketela gatazka zentralaren blokeo edo aurrerapauso itxaropenekin.

Lehen esan den bezala kaleko indarkeria-

ren fenomenoaren intentsitateak lotura garbia dauka gatazkaren blokeo amaitezinaren pertzepzioak sortarazten duen frustrazio eta etsipenarekin. Segurtasun berberarekin esan dezakegu desblokeo puntu berriak ireki-tzen duen guztiak –gai sektorialetan, lokaletan, nazionaletan, politikoetan, sozialetan edo humanitarioetan– biolentzia difusoaren fenomenoaren iraultzen laguntzen dela. Ekintza politiko positibo eta konstruktibo bakoitzak beste zerbait ere egingo du: politikak emaitzak ematen dituela erakutsi, alternatiba erreala dela indarraren bidearen aurrean. Finean, politikaren alderdirik konstruktiboena eta nobleena erakutsiko du. Horretarako beharrezkoa da gure klase politikoak pentsakera eta jarrera auzartagoa eta konpontzaileagoa izan dezan.

kaleko indarkeriaren fenomenoaren intentsitateak lotura garbia dauka gatazkaren blokeo amaitezinaren pertzepzioak sortarazten duen frustrazio eta etsipenarekin

### 4.3. Presoen eta senideen giza eskubideak errespetatzen direla bermatzea

«Biolentzia kondenatzea datorren lekutik datorrela» kontsigna zabaldua izan da politikari artean baina praktikan kontraesan ugari agertu dira. Gogor, tinko eta malgutasunik gabe jokatu da hain boteretsu ez direnekin eta ulermenez, malgutasunez eta indar handirik gabe boteretsuekin. ETAK beti erantzun tinkoa izan du itunen aldetik. Euskal politika ordea, oso biguna eta tolerantea izan da estatuarekin, salbuespenak salbuespen. Gerra zikina, CESIDen paperak, tortura, intsumisioa edo espetxe politika adibide batzuk besterik ez dira.

Espetxe politikan legea bete dadin lortzea eta presoen eta senideen giza eskubideen errespetua bermatzeak asko lagunduko luke kaleko indarkeriaren fenomenoaren iraultzen, eta sinesgarriago egingo lituzke biolentziaren

zenbait salaketa. Neurri hori legezkoa, demokratikoa eta aplikatzen erraza da, itxaropen berriak ekarriko lituzke eta gure kaleetako giroa baretzen lagunduko luke.

Antzeko zerbait esan daiteke intsumisioaren gaiaren inguruan. Gazte intsumisoak atxilotzearen aurrean erakusten den tolerantziak ondorio larriak ditu gazteriaren sektore zabal batzuetan. Badirudi inork ez daukala presarik gai horri irtenbide bat emateko. Horra hori beste blokeo-puntu bat. Egoera hori desblokeatuz gero, errazago litzateke fenomeno horren joera aldatzea.

4.4. Poliziaren ekintzetan prebentzio, kontentzio eta giza eskubideen errespetu irizpideak hartzea

Indarkeria difusoa bezalako fenomenoaren aurrean normala izaten da ondorioak isolatzeko joera eta irtenbiderik egokiena bide poliziala, errepresiboa edo penala dela pentsatzea. Historian zehar -baita gure herriaren historian ere- askotan ikusi da bide polizialak ezer ez konpontzeaz gain mota honetako fenomenoak indartu egin dituela eta azkenean irtenbide izan beharrean arazo ere bihurtu dela. Txosten honen asmoa ez da hain urruti joatea, baina kontuan izan beharreko zenbait kontu azpimarratu nahi genituzke.

Bide errepresiboak ez du kale indarkeriaren fenomenoaren adierazpenak baldintzatzera, mugatzera edo murriztera irits daiteke. Baina, behin baino gehiagotan gertatu izan den bezala, fenomenoak nahasten lagun dezake. Ez da gure lana poliziak edo epaileek zer egin behar duten zehatz-mehatz proposatzea, are gutxiago oraindik kontrol edo erregulaziorik gabeko espazio hutsak dituen sistema batean.

Hala ere, politika polizialean irizpide hauek proposatu nahi ditugu: kontentzioa, prebentzioa eta giza eskubideekiko errespetu osoa. Prebentzio eta kontentzio irizpidea, kaleko gatazka egoera batzuetan jadanik erabilia, gutxienez ez da kaltegarria. Eta hori ez da gutxi.

4.5. Elkarrizketa konstruktibo, plural eta integratzailezko esperientziak garatzea

Indarkeria difusoen joera aldatzen eta egoera horri eusten dioten arazoak jorratzen lagun dezakeen beste neurri bat ere badugu. Ez da magikoa, instantaneo edo milagrosoa. Elkarrizketa konstruktiboa, plurala eta integratzailea da. Normalean elkarrizketaren eta politikaren bideak funtzionatzen ez duenean agertzen baita indarkeria.

Oso garrantzitsua da gure gizartearen eremu guztietan mota horretako elkarrizketa esperientziak bultzatzea. Ikastetxeek, komunikabideek, elkarrekin, alderdi politikoek, instituzioek, mugimendu eta agente sozialek... denok zabaldu behar ditugu elkarrizketarako espazio berriak, espazio zabalak, eskusiorik gabek, komunitate jakin batek dituen arazoei irtenbide positiboak emateko borondatez. Elkarrizketak arazoak konpontzeko tresna gisa izan behar du maila askotan: auzoan, arazo sektorialetan, udaleko gatazketan, gai humanitarioetan eta bizitza politiko edo sozialean.

Espetxe politikan legea bete dadin lortzea eta preso- eta senideen giza eskubideen errespetua bermatzeko asko lagunduko luke kaleko indarkeriaren fenomeno iraultzen

bosgarren gogoeta - bosgarren proposamena

## biolentzia/ez-biolentzia eztabaidari ateak zabaldu

### 5.1. Eztabaidaren beharra

«Biolentzia/ez-biolentzia» eztabaidari ekin behar zaio, tranparik, aurreiritzirik eta estereotiporik gabe. Estereotipoei dagokienez, kontua ez da eztabaida hau bi irudiren pertsonifikazioa erabiliz egitea: alde batetik Gandhi eta bestetik gerrilero armatu eta enkaputxatua. Gure errealitatetik hurbilago dagoen eztabaida dugu. Hitz egin dezagun inolako beldurrik gabe gure gizarteak konbibilitate justu eta normalizatua lortzeko dituen baliabide eta tresnei buruz.

«Biolentzia/ez-biolentzia» eztabaida modu arinean, anbiguoan, erretorikoan eta kontraesanek jositik planteatu izan da gure herrian. Onartu beharra dago herri honetan posible izan dela pertsona batek aldi berean egitea gauza hauek guztiak: bakearen aldeko manifestazio batean parte hartzea, lazo urdina soinean eramatea eta GALen gerra zikinean parte hartzea edo intsumituak atxilotzea. Hemen posible izan da Ajuria Enea-ko Itunak ETArekin aurka hitz egitea baina gai ez izatea GALi erantzun bat emateko. Modu berean, herri honetan posible izan da giza eskubideen errespeturik eza salatzea eta aldi berean atentatu edo bahiketa bat txalotzea. Kontraesan maila hori jasatea zaila da gizartearentzat.

### 5.2. Egokitasuna eta kontestualizazioa

Eztabaida honen egokitasuna nabarmena da kaleko indarkeria eta enfrentamenduaren fenomenoak gazteengan duen eragina aztertu nahi badugu. Zenbait arrazoi direla eta (adina, biografia, esperientzia eta norberaren bizipenak) gazteek joera berezia izan dezakete biolentziaren erabilerarako. Horrexegatik da hain garrantzitsua eztabaida hau zabaltzea.

Gainera, eztabaida hau testuinguru jakin baten barnean kokatu behar da, denboran eta leku eta koiuntura jakin batean, gaur eta hemen. Biolentzia erabiltzea tresna egokia al da bidezko bakea lortzeko gaur eta hemen? Irtenbide demokratikorik ba al du gatazka honek gaur eta hemen?.

### 5.3. Eztabaida zentratzea

Bide biolentoen eta bide ez-biolentoen arteko eztabaidari ekiteko zerotik abiatu beharra dago. Orain arte izan ditugun argumentazio-lerro teorikoak kutsatuta eta agortuta daude praktikan. Prozesua berriro hasi beharra dago, eta paradigmak berreraiki.

Biolentzia ekintza politiko gisa salatzen denean normalean lau ikuspuntutatik egiten da:

etika, legimitatea, ondorioak edo erabilgarritasuna. Normalean azpimarratzen diren gaiak etika, legimitatea eta ondorioak izaten dira, baina normalean ez zaio behar adina garrantzia ematen erabilgarritasunari buruzko eztabaidari.

Biolentzia erabiltzeko edo legitimatzeko prest dagoen pertsonak gaindituak ditu biolentziak etikaren, legimitatearen edo ondorioen aldetik planteatzen dituen dilema personalak. Biolentziaren onarpenaren oinarrian konbentzimendu bat dago: lehendik existitzen den kalte handiago bati ematen zaion erantzuna dela. Pertzepzio horrek zerbait justifikatu nahi du, etika edo legimitateari buruzko eztabaida guztiak gainditzeko dituen ondorioak entrega pertsonalezko mailan edota hirugarrenei dagokienez saihestezin gisa hartzen ditu.

Garbi dago ez direla ahaztu behar etika, legimitatea eta ondorioak bezalako gai garrantzitsuak jadanik konponduta baleude bezala. Baina konbentzimendu handiagoz joratu beharra dago beste debatearen aukera baketzaileak: biolentziaren probe-txugarritasuna. Eta eztabaida horrek bi alderdi ditu: norberaren helburuak lortzeko duen baliagarritasuna eta beste alternatibarik ezaren aurka protestatzeko duen balioa.

«biolentzia/ez-biolentzia»  
eztabaidari ekin behar zaio,  
tranparik, aurreiritzirik eta  
estereotiporik gabe

#### 5.4. Biolentziaren baliagarritasuna

Gaur egun hemen biolentzia bidezko bakea lortzeko baliagarria dela esaten duenak aurkakoa dioten argumentazio sendo batzuei erantzun beharko die:

- Gaur egun utopia politikoa da XX. mendearen amaieran Madril eta Parisko gobernuen jarrera borroka armatuaren bidez aldatuko dela pentsatzea. Hori bakarrik ez; indar mailan espainiarra bezalako estatu batek, Europako eta munduko gobernu gehienek laguntzaz, askoz indar handiagoa du disidentziak baino. Horrek, guztiak nazioarteko isolamendu ia erabatekora eramaten du disidentea, eta horrek etorkizunerako hipoteka esan nahi du, gaingitzen oso zaila den hipoteka, alegia, proiektu politiko batentzat.

- Gaur egun, estatuko gobernuaren ikuspegitik biolentzia politikoa asimilazio erraza duen arazoa da, lehenik ondorioz ikusgarriena euskal herritarren arteko gatazka izatea delako, eta bigarrenik beste arazo batzuei dagokien atentzioa desbideratu egiten duelako eta gizarte espainiarra etsai amankomun baten inguruan elkartzea ahalbidetzen duelako.

- Gaur egun indarra erabiltzeak, elementu bateratzaile edo dinamizatzaile izan beharrean isolamendu politikoa eta bide horien aurkako joera sozialak sortarazten ditu, eta batzuetan baita helburuen aurkako jarrerak ere. Euskal herritarren arteko zatiketa eragile objektiboa da, gatazkaren izaera distortsionatu egiten du eta haustura sozial baterantz garamatza, konpontzen zaila den eta ondorio kezagarriak dituen hausturarantz, alegia. Euskal gizartearen zati handi batek ez du soilik etorkizunerako estatusari buruz erabakitzeke nahi autodeterminazioa, baita gizarte motari eta hori lortzeko moduari buruz erabakitzeke ere.

- Gaur egun, indarkeriaren erabilerak gurea bezalako gizarte aktibo eta kezkatu baten ekimen sozial eta politikoak burutzeko duen gaitasunaren zati handi bat neutralizatu eta baldintzatu egiten du. Blokeo edo berdinketa desorekatuaren egoerari eustea ahalbidetzen du, baina ez du bidezko soluzioa bermatzen. Logikoagoa dirudi bidezko bakeak hiru oina-

rri dituela pentsatzea: a) Irtenbide justu eta elkarrizketatu batekin konprometituta dagoen gizarte aktibo baten existentzia, b) akordio politiko eta sozioekonomikoez osatutako prozesu bat eraikitzeke borondatea eta c) nazioarteko laguntza bultzatuko duen estrategia bat garatzea. Kontua da gaur egun aste beteko su-etenak gehiago astintzen duela atentatu eta molotov koktel askok baino.

#### 5.5. Biolentziaren aurrean ditugun alternatibak

Biolentziaren erabilera defenditzen dutenei baliagarritasunaren galdera planteatzea egokitzen zaien bezala (ikuspuntu politikotik, bestelako gogoetak albo batera utzita), biolentziaren aurka daudenei edo bere baliagarritasuna ukatzen dutenei beste argumentu bati aurre egitea egokitzen zaie: «indarkeria ez da agian izango baliagarri bidezko bakea lortzeko, baina ez dago beste biderik. Alternatiba demokratikorik ezaren adierazpena da hain zuzen, biolentzia».

Onartu nahi ala ez, bidezko bakea bilatzeko orduan horixe da benetako erronka politikoa. Bide politiko ez-biolentoen nagusitasuna erakusteko, gaur eta hemen beste alternatiba batzuk badirela erakutsi behar da. Gaur egun hemen alternatibei buruz hitz egitea zera da:

- Gure gizartearen arazoentzat soluzio demokratikoak eta elkarrizketatuak bultzatzeko borondate politiko erreala dagoela ekintza konkretuen bidez erakusten duen prozesu batean konprometitzea;

- gatazkaren humanizazioa eta giza eskubide guztiak printzipio konpartitua direla ziurtaraztea;

- gaur egungo estatusa inposiziorik gabe eta prozedura demokratikoen bidez berraztertzea posible dela erakustea;

- edozein helburu politiko bide demokratikoen bidez defendatu ezezik lortzea ere ahalbidetzea;

- eta batez ere herri subiranotasunak ez duela oztoporik erakustea eta posible dela ondorengo printzipio hau aplikatzea: «azken hitza herriak dauka».

«Biolentzia/ez-biolentzia» eztabaida burutu egin behar da, baina horretarako beharrezkoa da elkarrizketa. Eta agian hitz egiten hasi baino lehen elkarrizketari buruz dugun ikuspegia eta jarrerak aldatu beharko ditugu.

Garbi dago ez direla ahaztu behar etika, legitimitatea eta ondorioak bezalako gai garrantzitsuak

eranskina:

## elkarrizketari buruz dugun ideia zuzendu

Aurreko guztiari buruz eta gure gizarteak behar duen guztiari buruz benetan hitz egin nahi badugu derrigorrez elkarrizketari buruzko ikuspuntua eta praktikari buruz zenbait gogoeta egin behar ditugu. Gurea bezalako gaztaka-testuinguru batean, jende guztiak elkarrizketari buruz hitz egiten duenean (asko erabiltzen diren beste ideiekin ere gertatzen den bezala) elkarrizketaren kontzeptuak arrisku bat du: desbirtuatzea eta bere potentzial transformatzailea murriztea.

Gure inguruan elkarrizketa-esperientzia bat garatu nahi badugu galdera hau planteatu behar dugu: beti bezala egingo dugu, ala posible ote da beste modu batera egitea? Kontua ez da elkarrizketarako teknikak edo taktikak sartzea, gure ohiturak aztertzea baizik, eta beste ohitura batzuk hartzea posible ote den frogatzea.

Dokumentu honen laugarren atalean, 4.5. puntuan «Elkarrizketa konstruktibo, plural eta integratzailezko esperientziak garatzea» proposatu dugu eremu guztietan: ikastetxeak, auzoak, komunikabideak, elkarteak, alderdi politikoak, instituzioak, mugimenduak, agente sozialak eta abar. Eranskin honetan elkarrizketa mota desberdinei buruzko gogoeta bat planteatzen dugu. Elkarrizketa konstruktibo, plural eta integratzailezko esperientzia bultzatu nahi duen edozein pertsona edo entitateri zuzenduta dago.

Eta hori egiteko arrazoia hau da: konbentzituta gaudela gure gizartean elkarrizketa positibozko esperientzia praktikoak bultzatzea dela biolentzia difusoaren fenomenoari aurre egiteko tresnarik egokienetako bat, baita bidezko konbentzientzia normalizatu eta demokratikoan oinarritutako etorkizuna prestatzeko ere.

### 1. Elkarrizketarako ohiturak

Ziurraski askotan entzun edo esan dugu «Hitz egin dezagun». Familian, auzoan, politika munduan, kalean, edo lagun, kide edo taldeen artean sortzen diren istiluetan maiz egi-

ten den proposamena da. Ekarpen ona da, edozein istiluren aurrean jarrera positiboa erakusten du, ez dago inhibiziorik, gauzak konpontzeko borondatea dago. Motibazioa eta bultzada onak dira.

Onartzen dugu, beraz, baliagarri, positibo eta beharrezkoa bezala kemen hori, motibazioa eta bul-

tzada deitu duguna hain zuzen. Kemenaren orientabidea aztertzeke parada egiten dugu momentu honetan: ea egoera konfliktibo bati irtenbi-

dea emateko egokia den, «hitz egin dezagun» hori. «Hitz egin dezagun» horren eszenategia praktikan jartzerakoan elementu ahulez inguraturua agertzen da eta askotan mugatu egiten dituzte bere aukerak.

•Honelako eszenategi batean hitz egitera ausartzen ez diren pertsonak egon ohi dira. Litekeena da gauza interesgarriak izatea adierazteko, baina testuinguru horretan ez dira gai ezer esateko. Pertsona hauek ez dira irtenbidean inplikatzeko, ez direlako partaide sentitzen.

•Badira, baita ere, hitz egitera animatu arren hitz egiteko erraztasun handirik ez duten pertsonak, eta nahiz eta ideia edo ekarpen onak izan, besteek ez dituzte kontuan hartzen, eztabaidaren dinamikak gainditu egiten dituelako. Pertsona hauek minduta sentitu ohi dira.

•Gertatzen da baita ere «hitz egin dezagun» motatako eztabaida hori bi edo hiru pertsonen monopolizatzea eta muturretaraino eramatea, purrustada pertsonaletara, edo irainetara helduz. Gainontzeko partehartzaileek aspertzen, inhibitzen eta paso egiten bukatzen dute.

konbentzituta gaudela gure gizartean elkarrizketa positibozko esperientzia praktikoak bultzatzea dela, biolentzia difusoaren fenomenoari aurre egiteko tresnarik egokienetako bat

•Batuetan, egoten dira pertsonak hitz egiteko duten erraztasunagatik, euren energia-gatik, edo trebetasun arraro batengatik eurek esaten dutena egitea lortzen dutenak, nahiz eta inor ez egon ados. Gainontzeko partehartzaileei inposaketa bat egon dela iruditzen zaie. Eta inpresio horrekin ateratzen dira.

•«Hitz egin dezagun» motako eszenategi batean, normalean, «dena dakien» pertsonaren bat edo gehiago izaten da. Pertsona horiek ziur daude gatazkaren irtenbidea ezagutzen dutela. Euren proposamena koherentee-na, arrazionalena, bidezkoena eta justifikatue-

na dela pentsatzen dute, eta arazoa hau xe dela: besteak ez direla horretaz jabetzen, ez direla inplikatzeko, ez direla ausartzen onartzera, ez dute nahi, edo ez zaie in-

teresatzen. Jokabide hau bikoiztu egin daiteke jarrera berdineko pertsonak aurki daitezkeelako bi aldeetan. Pertsona horiek behin eta berri-ri, sutsuki, euren proposamena, euren analisia eta bermatzen duten arrazonamenduak errepikatzen dituzte. Eztabaida luze baten ondoren ez dituzte euren posizioak hurbiltzen, gehiago urrundu baizik.

•Askotan, «hitz egin dezagun» motako bilgunean lubakien arteko enfrontamendu batean parte hartzen ari garela dirudi. Alde bakoitzak bere lubakiaren atzean dagoen lurraldea defendatzen du eta ez du inolaz ere hurbiltasun minimoa toleratzeko asmorik. Tiroketa bat hasten da eta lurraldearen defentsa da garrantzitsuena, perspektiba galtzen da, irtenbidearen helburu nagusia ahazten da, beste aldeari edozein arrazoi ukatu egiten zaio eta tiroka jarraitzen da. Besteek hitz egiten dutenean, ez da entzuteko garaia, hurrengo tiroketa prestatzeko momentua baizik. Irtenbideak ezinezkoa dirudi.

•Askotan, honelako dinamika batean ere, azkenean zera dirudi, sakoneko arrazoiek eta ideiek ez dutela garrantzirik; garrantzia duen bakarra aurpegia, irudia eta ohorea ez galtzea da, ahultasuna ezkutetzea eta tinkotasuna, ziurtasuna eta indarra agertzea. Arrazoa izan ala ez izan, bakoitzak esan duenari heltzen dio eta edonola ere mantendu egiten du. Besteek

arrazoi pixka bat ematea porrotaren seinalea da, eta kezkgarria gainera. Testuinguru honetan oso zaila da –agian ezinezkoa– aurrera egitea.

•Paradoxikoki, honelako bileretan alde bakoitza utopia baten menpe dago. Bere sakoneko desioa, beste aldea gure posizioaren egiaz konbentzitzea da, besteek arrazoi osoa emango diguten ilusio osoz. Baina hau ez da inoiz gertatzen; aitzitik, guztiz kontrakoa gertatzen da.

Agian denok ikusi izan ditugu honelako jokabideak eztabaidetan. Gogora dezagun, adibidez, alderdien arteko azken mahaingurua eta azter ditzagun bertan emandako fenomenoak. Edo gogora dezagun auzokideen arteko azken bilera, edo lankide, edo gure herriko taldeen artekoa.

Aipatu ditugun fenomenoek ez dute zerrenda oso bat osatzen. Adibide gisa aipatu ditugun batzuk besterik ez dira. Ez dira beti batera agertzen, baina normalean «hitz egin dezagun» proposamena honelako jokabide batzuekin lotuta dator, eta bere eraginkortasuna eta arrakasta aukerak baldintzatu egiten dute hain zuzen ere.

elkarrik bere foroak eta topaketak antolatze-ko orduan behin eta berriz eztabaida-metodo batzuk erabiltzeko ohitura baldin badu honegatik da: «hitz egin dezagun» modeloak, elkarrizketa bultzatzeko eta akordioa lortzeko bitarteko bezala, neke sintoma argiak erakusten dituelako, eta ziur dagoelako beste modu batzuk egon daitezkeela aurrera egiteko.

«Hitz egin dezagun» paradigma (modelo edo eskema) bultzada sano baten parte da, baina puntu ahul samarrak dauzka. Kemena eta bultzada mantentzen dituzte. Honek esan nahi du «hitz egin dezagun...»a onartzen dugula. Orain pentsa dezagun ea alda daitekeen paradigma. Ikus dezagun ea ahultasun gutxiagoko modelo edo eskemaren bat erabil daitekeen eta arrakasta aukera gehiagorekin.

«Entzun dezagun». Hau da elkarrik proposatzen duen paradigma berria. Gizarte mugimendu hau proposatzen ari den lan-metodo eta talde-eztabaidaren oinarrian dagoen filosofia ezkututzen da esaldi honetan. Baina kontuz, ez da inongo formula magikorik. Ez du esan nahi paradigma honekin dena erraza de-

Euskal Herri bakarra dago, gure ezkaratzean bizilagun komunitate bakarra dago eta bertan bizitzen jarraitu behar dugu

nik. Hori bai, modelo, eskema, abiapuntu edo paradigma honek itxaropen berriak eta garen gune handiagoak irekitzen dizkio elkarrizketaren ideari, modu eraikitzaileago batean hitz egitea ahalbidetzen du, baina ez du arrakasta bermatzen, hori faktore askoren menpe baitago. Lana baldintza hobean egitea ahalbidetzen digun tresna bat besterik ez da.

«Entzun dezagun» modeloa praktikan jaritzeko behar-beharrezkoa da zenbait gauza kontuan hartzea.

- Hasteko, garrantzi handikoa da bilerari ekiterakoan erakusten dugun jarrerara. Egin daitkeen aurreneko interpelazioa geure buruei galdetzea da, ea jabetzen garen guztiok unti berean gaudela, unti bat besterik ez dagoela eta, gainera, bertan jarraitu beste erremediorik ez dugula. Egia da arazoak eta gatazkak ditugula unti barruan, baina bat gatoz esaterakoan irtenbidea ez dela bidaiarien eta tripulazioaren erdia kareletik botatzea. Euskal Herri bakarra dago, gure ezkaratzean bizilagun komunitate bakarra dago eta bertan bizitzen jarraitu behar dugu. Irtenbidea ez da UPN, PSOE eta PPko guztiek, edo HBkoek, edo abertzale guztiek, edo abertzale ez direnek unti uztea. Untzi bera daukagu eta aurrerantzean ere hala jarraituko dugu. Badugu lehen elementu amankomuna.

- Bigarrenik, azter dezagun zer nolako jarreraz behatzen dugun konpondu beharreko arazoa. Ohikoa izaten da “bandoen” jarrera hartzea. Alderdi bakoitza mahaiaren alde batean esertzen da eta berehala ekiten dio enfrentamenduari. Arazoa aurrekoak dira, beraien da errua. Har dezagun alegiazko beste jarrera bat. Pentsa dezagun guztiak gaudela mahaiaren alde berean eserita eta arazoa mahai gainean zabaldu dugula. Hartara, arazoa zertxobait urrunagotik aztertuko dugu, modu hotzago eta objetiboagoan, eta seguru egonda arazoa guztiona dela eta baita behar bat ere: guztiok arazoa konpontzeko beharra dugu.

- Hirugarrenez, komeni izaten da argitu nahi dugun inkognitaren inguruan pentsatzen gelditzea, zer galderarentzat ari garen erantzun bila. Untzi honetan gatazka bat dago txopako eta brankako marinelen artean, eta untiarentzat irtenbide egokia bilatzea interesatzen zaigu, untiak nabigatzen jarrai dezan eta denok hondora joan ez gaitezen. Une honetan ez dio axola nor dagoen txopan eta nor

brankan, ez eta nor noren izenean ari den. Kontua da arazoa hor dagoela, mahai gainean, eta gu geu garelara, mahaiaren alde honetatik, konpondu behar dugunak. Funtsezko galdera ez da «non dago arazoa eta nor da erruduna?», baizik eta «non dago irtenbidea eta nola lor dezakegu guztion artean?».

- Bilera enfokatzeko era ezberdin hau abiapuntu izanda, entzuten hastea besterik ez dago. Orain, beraz, «entzun dezagun» zenbait printzipiori zor zaion begiruneaz:

- Topagunean parte hartzen duen orok dauka -bere bizipen eta esperientzietan oinarrituz- esateko interesgarriak. Baita gutxitan hitz egiten dutenek ere, edo zerbait adierazteko zailtasunak dituztenek ere. Entzun egin behar diegu.

Kontua da arazoa hor dagoela, mahai gainean, eta gu geu garelara, mahaiaren alde honetatik, konpondu behar dugunak

- Nire ustetan hobe zina den irtenbidea baina hoberik bada. Irtenbide hori bera da, baina gainerakoek egindako ñabardura, eragozpen eta ekarpenak erantsi ondoren. Baina horretarako, entzutearen aldeko jarrera izan behar da.

- Nahiz eta batzuetan konturatzeko zaila izan, nik defendatutako jarreraren beste muturrean dagoen horrekin ere badira elementu amankomunak, badira adostasun guneak; partzialki bateragarriak dira: komeni izaten da gune horiek identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak ezagutzeko. Baina horretarako, arreta handiz entzun behar da.

- Beste aldeak beti izaten du arrazoiaren, egiaren, justifikazioaren eta zilegitasunaren zati bat, handiagoa edo txikiagoa, baina badu. Ezinbestekoa da zati hori ezagutzea eta aitortzea. Ariketa hau beharrezkoa da, aukera ematen baitugu arazoa bere osotasunean ulertzeko. Gatazka bati irtenbidea aurkitzeko, ezagutu egin behar da, ahalik eta informazio eta datu gehien izan. Eta horretan sartzen da beste aldeak duen arrazoiaren, egiaren, justifikazioaren eta zilegitasunaren zatia ere ezagutzea. Horretarako, behar-beharrezkoa da entzuten jarraitzea.

-Beste aldearekin elkarrizketatzea eta hitz egitea, «entzun dezagun» testuinguruan, besteren larruan jartzeko erabili behar da, zer pentsatzen duen eta elkarren arteko gatazka nola sentitzen duen sakonetik ezagutzeko. Beste aldearen posizioa beraiek bezain ondo edo hobeto azaltzera iritsi behar dugu.

Helburua ez da, noski, entzutea soilik. Lehendabizi entzun egin behar da, baina beharrezkoa da irtenbidea bilatzen aurrera egitea. Sakonetik entzuteko eta egiatan entzuteko jarrerak arazoa ezagutzen eta ulertzen lagundu digu

Hori eginda, arazoaren inguruko ezaguera areagotzea z gain, uneoro jakingo dugu irtenbiderik proposatzen ari garen, guretzat baliagarri izan eta beste aldeari zerbaitetarako balioko diotenak. Honek ere berekin dakar ahalik eta arretarik handienaz entzutea ulertu ahal izateko.

Honek ere berekin dakar ahalik eta arretarik handienaz entzutea ulertu ahal izateko.

- Helburua ez da, noski, entzutea soilik. Lehendabizi entzun egin behar da, baina beharrezkoa da irtenbidea bilatzen aurrera egitea. Sakonetik entzuteko eta egiatan entzuteko jarrerak arazoa ezagutzen eta ulertzen lagundu digu. Hurrengo urratsa izango da gurea ulertaraztea, entzunaraztea, gure arrazoiaren, gure egiaren, zilegitasunaren eta justifikazioaren zatia ere uler dezaten, gure pentsakera eta sentitzeko era uler dezaten.

- Arazo honek (dena delakoak) irtenbide onik baduela sinesteak animatzen gaitu. Gurea baino askoz ere arazo larriagoek eta konplexuagoek aurkitu izan dute historian zehar irtenbide egoki hori. Gure arazoak era badi irtenbide egokirik.

- Nola irudikatzen dugun irtenbide hori? Badira irtenbide batzuk, «nik irabazten eta zuk galtzen duzu» modukoak, edo «zuk irabazten eta nik galtzen dut», edo «nik galtzen eta zuk ere galtzen duzu» erakoak, baina ez dira irtenbide onak. Irtenbidea «biok irabazten dugu» aldera eraman behar da. Guztiok irabazteko moduko irtenbidea bilatu. Nahiz eta itxuraz zaila izan, eta benetan zaila da, hau da lortzen asmatu beharreko irtenbide eredu, eredu horrek eskaintzen baititu bidegarritasun bermerik onenak etorkizunerako.

Aurreko hauek guztiak dira elkarrik lan egiteko egundaino foroetan proposatu dituen metodoetan sakon-sakonean daudenak. Norbaitek zera galde dezake: zergatik ezin dira «hiru txandako metodoan» gainerako partehartzaileekin eztabaidatu edo kontraesantetan hasi, ez aurreneko txandan, ez bigarrenen, ezta hirugarrenean ere? Jarrera bat edo iritzi bat eztabaidatu aurretik ezinbestekoa delako ulertu dugula ziurtatzea.

Bigarren txandan zergatik egiten dira galderak eta zergatik azalpenak ematen? Gure iritzia eman aurretik ahalik eta ondoen ezagutu behar dugulako epaitu behar dugun iritzia. Eta zergatik hirugarren txandan aipatu behar ditugu gainerakoek azaldu dituzten elementurik interesgarrienak edo antzekotasunik dutenak? Epaia zalapartan eman baino lehen komeni izaten delako puntu amankomunak ezagutzea, antzekotasun horiek ematen dituzten aukerak aztertzea.

Ondoren, labur bada ere, deskribatu egingo ditugu filosofia hau eta «entzun dezagun» paradigma martxan jartzea erraztu dezaketen metodo hauetako batzuk, aldi berean, gatazka egoeretan elkarrizketa zuzentzen lagun dezaketenak. Edozein kasutan, kontua ez da metodo horiek zurrunki aplikatzea, arrazoiak ezagutzea baizik. Behin arrazoiak ezagututa, metodo horien ondorio diren irizpideak, logika eta sen ona aplikatu besterik ez dago. Metodo hauek aplikatu daitezke edo baita beste modu batzuk irudikatu ere norabide berean aurrera egiteko.

2. Esku artean ditugun zenbait metodo

Atal honetan ez gara luzatuko metodo bakoitza deskribatzen. Hauetako batzuen azalpen txiki bat egin nahi dugu besterik gabe. Norbaitek hauetako metodoren batean edo beste batzuetan sakondu nahi izango balu bibliografia kontsulta dezake edo elkarrekin jarri beharko luke harremanetan dokumentazio edo informazioa lortzeko, edo metodo hori praktikan jarri duten esperientzia batzuk zuzenean ezagutzeko.

### 2.1. Hiru txanden metodoa

Metodo honen helburua bakoitza bere burua entzutera eta aldamenekoa konbentzitzera doan eztabaida ekiditea da. Kontrakoa da hain zuzen: lan-metodologia bat garatzea, elkar-entzutean oinarrituta bilera bakoitzaren

ondorio eraikitzaileak atera ahal izateko. Metodo honetan oinarrituriko bilerak urrats hauek jarraituko lituzke:

A. Aurkezpena. Argi geratu behar du zein den eztabaidagaia. Interesgarria da gaien formulazio positiboa izatea, adibidez: «zer ekarpen egin dezakegu gure herritik Euskal Herrian bidezko bake-prozesu bat eman dadin» elkarriren foro lokaletan bezala.

B. Lehen txanda. Pertsona bakoitzak denbora laburrean, 5 minutu gutxi gora-behera, bere iritzia ematen du. Inork ezin du besteen hitza moztu edo eztabaidan jarri.

C. Bigarren txanda. Partehartzaile bakoitzak parte har dezake besteek esandakoari zalantzak, azalpenak edo zehaztapenak eskatzeko. Txanda honetan ezin da eztabaidatu ezta besteek esandakoak zalantzan jarri ere.

D. Hirugarren txanda. Partehartzaile bakoitzak berriz ere hitza hartzen du besteek esandakoetatik gauza interesgarrienak azpimarratzeko edo adostasunak azaltzeko.

E. Akta. Aurretik izendatutako taldeko kideren batek hirugarren txandako akta jaso beharko du. Gainontzeko partehartzaileei akta aurkeztu aurretik, aktari koherentzia eman beharko dio iritzi ezberdinak berregituratzen, fusionatzen eta parekatzen. Akta horrek aurre-akordio adierazpen multzo bat osatzen du eta, dudarik gabe, ondorengo lana eskatuko du eta abiapuntu on bat izan daiteke hitz egiten eta puntu amankomunak lantzen eta garatzen joateko. Ziurraski akta horretako iritziak bi multzotan bana daitezke: helburuak adierazten dituzten iritziak eta estrategiak adierazten dituztenak. Foroaren hurrengo urratsa, metodo berbera jarraituz estrategia- ren bat garatzea izango litzateke.

## 2.2. Post-it metodoa

Aurreko metodoarekin elementu amankomunak dituen ideia-aurkeztu bat da.

A. Aurkezpena. Argi geratu behar du zein den eztabaidagaia. Interesgarria da gaien formulazio positiboa izatea.

B. Bilera honetako pertsona bakoitzak bere ideia eta proposamenak idazten ditu post-itan. Ideia bakoitza post-it batean adieraziko

da, esaldi sintetikoetan eta maiuskulaz idatzita. Nahi adina post-it idatzi ahal izango da. Post-it guztiak horma batean itsatsi beharko dira.

C. Bilketa. Post-itak klasifikatu egingo dira ondoren gai ezberdinetan. Litekeena da post-it guztiak azkenean hamar, hamabi edo hamalau taldetan sailkatuta agertzea.

D. Sintesia. Post-it talde bakoitzaren ideia folio batean sintetizatuko da, eta erredakzio berri horretan ez litzateke kanpoan utzi beharko inongo ñabardurarik. Prozesuak bere horretan jarraitzen du folio guztiak erredakzio bakar batean modu koherente batean integratu arte. Testuak parekatu, gehitu, fusionatu, eliminatu eta berregituratzean datza. Kontua ez da post-itetako ideiekin adostasuna ala desadostasuna eztabaidatzea, erredakzio adostu batean integratzen joatea baizik.

E. Azken testua. Azkenean, aurreko metodoan bezala talde horretan bildu diren pertsonen utopiak, helburuak eta estrategiak deskribatzen dituen dokumentu koherente batekin aurkituko gara. Hurrengo urratsa dokumentu horretan jasotzen diren gauzetan sakontzea izango da.

## 2.3. Moderatzailearekin bilerak

Hau da metodo ezagunena. Hiru txandetako metodoan eta post-it teknikan dagoen sakoneko mekanika oso erreferentzia ona da moderatzaile baten lanaren nondik norakoa gidatzeko. Lehen-lehenik beharrezkoa izango da perfil egokia duen pertsona aurkitzea eta ofizioan aritutakoa izatea ahal den neurrian. Lau dira moderatzaile batek bete behar dituen funtzioak:

a) bileraren hasiera behar bezala enfokatzeko.

b) sortzen diren blokeo-puntuak libratzeko proposamenak egitea.

lan-metodologia bat garatu behar da, elkar-entzutean oinarrituta bilera bakoitzaren ondorio eraikitzaileak atera ahal izateko

c) pareko iritziak identifikatzea bileraren garapen-ardatz bezala parekotasunak eginaz behin eta berriz.

d) adostasun-guneak identifikatzea ondorio bezala proposatzeko.

#### 2.4. Beste metodoak

Beste metodo asko daude talde-dinamikan elkarrizketa prozesu positibo eta eraikitzaileak lortzeko. Ikerketa koalitatiboko lanak, NIP metodologia eta beste hainbat ere erabilgarriak izan daitezke. Elkarrizketa esperientzi bakoitzak bere errealitatera eta helburuetara hobe-

kien egokitzen den metodoa aukeratu behar du. Behin aukeraketa egin ondoren gauza bakarra geratuko litzateke: beste edozein tresna erabiltzen dugun bezala, metodoan sakontzea, ezagutzea eta erabiltzen ikastea. Azken finean hau da helburua: entzumena elkarrizketarako ohitura bihurtzea.



elkarrizketa eta akordioaren aldeko  
gizarte mugimendua